Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2021eko martxoaren 24a, asteazkena — 55 — Miércoles, a 24 de marzo de 2021

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK — 1 — DISPOSICIONES GENERALES DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

*150/2021 Foru agindua, martxoaren 18koa, zeinaren bidez aldatzen baitira makinen edo aparatu automatikoen bidezko jokoaren gaineko zergari eta haren gaineko errekarguari dagozkion 044 eta 44D ereduak aurkeztu eta diru-sarrera egiteko epeak.*

Otsailaren 1eko 1/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoan Jokoaren gaineko Zerga arautzen duenak, Euskal Autonomia Erkidegoan baimendu behar diren joko jarduerak zergapetzen ditu, joko hori Gipuzkoako Lurralde Historikoan egiten denean.

Foru arau horren arabera, besteak beste, makinak edo aparatu automatikoak ustiatuz egiten diren joko jarduerak baimendu, antolatu edo egiteak eratzen du zerga egitatea jokoaren gaineko zergan.

Foru arau bereko 12. artikuluak dio ausazko jokoak egiteko gai diren makinen edo aparatu automatikoen bidezko jokoetan, kuota finko bat exijituko dela makina edo aparatu bakoitzeko. Orobat, hirugarren apartatuan ezartzen du ezen ustiapenerako baimena lortzen den urtean edo baimen hori eten, errebokatu edo azkentzen denekoan, kuota hiruhileko naturaletan hainbanatuko dela baimena ematen denetik aurrera edo hari baja eman, hura eten edo errebokatu arte.

Bere aldetik, abenduaren 21eko 1330/2001 Foru Aginduak, zorte, apustu eta zorizko jokoen gaineko tributuak aitortu eta likidatzeko erabili beharreko 040, 042, 044 eta 046 ereduak onartzen dituenak (ekainaren 17ko 548/2008 Foru Aginduaren bidez aldatua), 044 eredua onartu zuen, jolas edo zorizko makinekin egindako zorte, apustu eta zorizko jokoen gaineko tasa fiskala autolikidatzekoa. Haren arabera, 044 eredua hiru hilean behin aurkeztu behar da, baita diru-sarrera egin ere, martxo, ekain, irail eta abenduaren lehen hogeita bost egun naturalen barruan.

Orobat, zerga horren kuotak ordaintzea errazteko, abenduaren 27ko 599 Bis/2005 Foru Aginduak, makinen edo aparatu automatikoen bidezko jokoaren gaineko zergaren ordainketa bankutik helbideratzeko prozedura ezartzen duenak (urriaren 31ko 952/2008 Foru Aginduaren bidez aldatua), 44D eredua onartu zuen, helbideratze prozedura horretan alta eskatzeko erabili beharrekoa. Eskaera hori epe jakin baten barruan egin beharra dago, zergaren autolikidazioa noiz aurkezten den eta diru-sarrera noiz egiten den aintzat hartuta.

Lehendakariaren urriaren 26ko 36/2020 Dekretuaren bidez jarduera ekonomikoa mugatzeko hartu ziren neurrien testuinguruan –Dekretu horren bitartez osasun publikoko prebentzio neurriak hartzen dira alarma egoeraren adierazpenaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko– (neurri horiek azaroaren 6ko 38/2020 Dekretuak aldatu ditu gero), azaroaren 30eko 466/2020 Foru Aginduak, zeinaren bidez aldatzen baitira, 2020ko azken hiruhilekorako eta 2021eko lehenengorako, makinen edo aparatu automatikoen bidezko jokoetan aplikatu beharreko kuota finkoak autolikidatzeko epeak, erregela bereziak ezarri zituen epealdi horietako 044 eredua aurkezteko. Zehazki, foru agindu horrek

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

*Orden Foral 150/2021 de 18 de marzo por la que se modifican los plazos de presentación e ingreso de los modelos 044 y 44D correspondientes al Tributo sobre el Juego mediante la explotación de máquinas o aparatos automáticos y al Recargo que recae sobre el mismo.*

La Norma Foral 1/2005, de 1 de febrero, por la que se regula el Tributo sobre el Juego en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, grava las actividades de juego cuya autorización deba realizarse en el País Vasco y su celebración tenga lugar en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

La referida norma foral establece que constituye el hecho imponible del Tributo sobre el Juego la autorización, organización o celebración de, entre otras, las actividades de juego mediante la explotación de máquinas o aparatos automáticos.

El artículo 12 de la misma establece que, en los juegos mediante la explotación de máquinas o aparatos automáticos aptos para la realización de juegos de azar, será exigible una cuota fija por cada máquina o aparato. Asimismo, su apartado Tres establece que, en el año en que se obtenga la autorización o permiso de explotación, o en el que se produzca su suspensión, revocación o extinción, la cuota se prorrateará por trimestres naturales contados desde la autorización o hasta la baja, suspensión o revocación.

Por su parte, la Orden Foral 1330/2001, de 21 de diciembre, por la que se aprueban los modelos 040, 042, 044 y 046 de declaración-liquidación de los Tributos sobre juegos de suerte, envite o azar, modificada por la Orden Foral 548/2008, de 17 de junio, aprobó el modelo 044 de autoliquidación de la Tasa Fiscal sobre juegos de suerte, envite o azar mediante máquinas recreativas con premio o de azar, cuya presentación e ingreso deberá efectuarse trimestralmente en los veinticinco primeros días naturales de los meses de marzo, junio, septiembre y diciembre.

Asimismo, para facilitar el ingreso de las cuotas resultantes del citado tributo, la Orden Foral 599 Bis/2005, de 27 de diciembre, por la que se establece el procedimiento de ingreso mediante domiciliación bancaria del tributo sobre el juego mediante la explotación de máquinas o aparatos automáticos, modificada por la Orden Foral 952/2008, de 31 de octubre, aprobó el modelo 44D para solicitar el alta en el procedimiento de domiciliación, en determinado plazo acorde con la presentación e ingreso de la autoliquidación del tributo.

En el contexto generado por las medidas adoptadas de limitación de la actividad económica con la aprobación del Decreto 36/2020, de 26 de octubre, del Lehendakari, por el que se determinan medidas específicas de prevención en el ámbito de la declaración del estado de alarma, como consecuencia de la evolución de la situación epidemiológica y para contener la propagación de infecciones causadas por el SARS-CoV-2, modificadas por el Decreto 38/2020, de 6 de noviembre, la Orden Foral 466/2020, de 30 de noviembre, por la que se modifican para el último trimestre de 2020 y el primero de 2021 los plazos de autoliquidación de las cuotas fijas aplicables en los juegos mediante la explotación de máquinas o aparatos automáticos, estableció reglas especiales de presentación del modelo 044 para

EK\CV GAO-I-2021-01955

xedatu zuen eredu hori 2021eko urtarril eta apirilaren lehen hogeita bost egunen barruan aurkeztu eta ordaindu beharko dela.

Neurri hori bat dator Gipuzkoako zerga sistema eratzen duten gainerako zerga figuretan hiruhileko diru-sarrerei dagokienez oro har aplikatzen diren epeen konfigurazioarekin.

Aurrekoarekin bat eginez, eta kontuan izanik 1/2005 Foru Arauaren 16. artikuluak ahalmena ematen diola Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuari erabakitzeko zein epetan aurkeztu behar diren aipatutako ereduak eta diru-sarrera noiz egin behar den, foru agindu honen bitartez hiruhileko epe berriak onartzen dira: alde batetik, 044 autolikidazio eredua aurkeztu eta ordaintzeko epea, eta, bestetik, ordainketa helbideratzeko aurkeztu behar den 44D ereduarena, biak ere makinen edo aparatu automatikoen bidezko jokoaren gaineko zergari eta haren gaineko errekarguari buruzkoak.

Horrenbestez, hau

XEDATZEN DUT

*1. artikulua. 044 eredua aurkezteko eta diru-sarrera egiteko epea.*

Abenduaren 21eko 1330/2001 Foru Agindua, zorte, apustu eta zorizko jokoen gaineko tributuak aitortu eta likidatzeko erabili beharreko 040, 042, 044 eta 046 ereduak onartzen dituena, 3. artikuluaren hirugarren apartatuko lehen paragrafoan aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«044 ereduaren aurkezpena eta diru-sarrera makina edo aparatu bakoitzeko egingo da, apiril, uztail, urri eta urtarrilaren lehen 25 egun naturalen barruan, eta kuota finkoaren eta sortutako errekarguaren ehuneko 25 ordaindu beharko da.»

*2. artikulua. 44D eredua aurkezteko epeak.*

Abenduaren 27ko 599 Bis/2005 Foru Agindua, makinen edo aparatu automatikoen bidezko jokoaren gaineko zergaren ordainketa bankutik helbideratzeko prozedura ezartzen duena, 3. artikuluaren 2. apartatuan aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«2. Helbideratze prozeduran alta, aldaketa eta baja emateko eskaera epe hauetan aurkeztuko da 44D ereduaren bitartez:

a) Helbideratzeak urte naturaleko lehen hiruhilekotik aurrera ondorioak izan ditzan, martxoaren 20tik apirilaren 5a bitartean aurkeztuko da.

b) Helbideratzeak urte naturaleko bigarren hiruhilekotik aurrera ondorioak izan ditzan, ekainaren 20tik uztailaren 5a bitartean aurkeztuko da.

c) Helbideratzeak urte naturaleko hirugarren hiruhilekotik aurrera ondorioak izan ditzan, irailaren 20tik urriaren 5a bitartean aurkeztuko da.

d) Helbideratzeak urte naturaleko laugarren hiruhilekotik aurrera ondorioak izan ditzan, abenduaren 20tik urtarrilaren 5a bitartean aurkeztuko da.

Alta eman ondorengo epealdietan, eta zergadunak aldaketaren bat jakinarazten ez duen artean, berak aukeratutako kontuan kargatuko da zergadunak adierazitako baimenen zerrendan dagokion jokoaren gaineko zergaren kalkulutik ateratzen den hiruhileko kuota.»

*Azken xedapen bakarra.*

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2021eko martxoaren 18a.—Jokin Perona Lerchundi, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua.

(1955)

dichos períodos. En particular, dispuso que la presentación e ingreso del mismo debía efectuarse en los veinticinco primeros días de los meses de enero y abril de 2021, respectivamente.

Esta medida es acorde con la configuración de los plazos de ingreso trimestrales que, con carácter general, son de aplicación en el resto de las figuras impositivas del sistema tributario de Gipuzkoa.

En coherencia con lo anterior, y teniendo en cuenta que el artículo 16 de la antes mencionada Norma Foral 1/2005 faculta al diputado o a la diputada foral del Departamento de Hacienda y Finanzas para determinar los plazos de presentación e ingreso de los referidos modelos, mediante la presente orden foral se aprueban nuevos plazos trimestrales de, por un lado, presentación e ingreso del modelo 044 de autoliquidación y, por otro lado, presentación del modelo 44D de domiciliación del pago, correspondientes al Tributo sobre el Juego mediante la explotación de máquinas o aparatos automáticos y al recargo que recae sobre el mismo.

En su virtud,

DISPONGO

*Artículo 1. Plazos de presentación e ingreso del modelo 044.*

Se modifica el primer párrafo del apartado Tres del artículo 3 de la Orden Foral 1330/2001, de 21 de diciembre, por la que se aprueban los modelos 040, 042, 044 y 046 de declaración-liquidación de los Tributos sobre juegos de suerte, envite o azar, que queda redactado en los siguientes términos:

«La presentación e ingreso del modelo 044 se efectuará por cada máquina o aparato automático en los 25 primeros días naturales de los meses de abril, julio, octubre y enero, procediéndose al ingreso del 25 por ciento de la cuota fija y del recargo devengados.»

*Artículo 2. Plazos de presentación del modelo 44D.*

Se modifica el apartado 2 del artículo 3 de la Orden Foral 599 Bis/2005, de 27 de diciembre, por la que se establece el procedimiento de ingreso mediante domiciliación bancaria del tributo sobre el juego mediante la explotación de máquinas o aparatos automáticos, que queda redactado en los siguientes términos:

«2. El plazo para la presentación de la solicitud de alta, modificación y baja en el procedimiento de domiciliación a través del modelo 44D será el siguiente:

a) Para que la domiciliación surta efectos desde el primer trimestre del año natural, deberá presentarse entre el 20 de marzo y el 5 de abril.

b) Para que la domiciliación surta efectos desde el segundo trimestre del año natural, deberá presentarse entre el 20 de junio y el 5 de julio.

c) Para que la domiciliación surta efectos desde el tercer trimestre del año natural, deberá presentarse entre el 20 de septiembre y el 5 de octubre.

d) Para que la domiciliación surta efectos desde el cuarto trimestre del año natural, deberá presentarse entre el 20 de diciembre y el 5 de enero.

En los periodos posteriores al alta y en tanto no se presente comunicación de modificación por el contribuyente, se cargará, en la cuenta designada, la cuota trimestral resultante del cálculo del tributo sobre el juego correspondiente a la relación de permisos consignados por el contribuyente.»

*Disposición final única.*

La presente orden foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 18 de marzo de 2021.—El diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, Jokin Perona Lerchundi.

(1955)

EK\CV GAO-I-2021-01955